

## GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALAKO (PREBENTZIOA) LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA. 2021eko URTARRILAREN 28ko GERENTEAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

---

### ARIKETA BAKARRA: DATA ETA LEKUA.

Deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia), **Gestioko Teknikarien Eskalako (Prebentzioa)** lan-poltsa zabaltzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

**LEHENENGOA.-** Hautaketa-prozesuko ariketa bakarra, deialdiaren seigarren oinarriko 6.1 atalean zehaztuta dagoena, **2021eko ekainaren 25ean** izango da (ostirala). **16:00etan** hasiko da azterketa. Lekua: **Lan Harremanetako Fakultatea (Leioan)**. Gelak: **2.1 eta 1.1**.

Deitutakoen akreditazioa **15:30etan** hasiko da.

Proba egiteko Instrukzioak irakurtzeko unean ezin izango da inor sartu

**BIGARRENA.-** Probaren zehaztasunak honako hauek dira: Probak bi zati ditu.

- Lehenengo atala: Aukera anitzeko erantzunak izango dituzten 100 galdera (gehi erreserbako 10) erantzun beharko dira idatziz. Ez da punturik kenduko okerreko erantzunengatik edo erantzunik gabeko galderengatik. Atal honen iraupena 120 minutukoa izango da eta gehienez 10 puntu emango dira eta gutxienez, 0.
- Bigarren atalean (praktikoa) kasu praktiko bat egin beharko da. Ariketa praktikoaren edukia deialdiko seigarren oinarrian esandakoarekin bat etorriko da (6.1.1.2). Atal honen iraupena 75 minutukoa izango da eta gehienez 10 puntu emango dira eta gutxienez, 0.
- Bigarren atalean gai zerrendarekin erlazionatuta dagoen araudia erabili daiteke. Bigarren atal honetan, izangaiak bere kontsultarako materialekin agertu daitezke, hau da, azalpenik gabeko araudizko testuekin, 6.1.1.2 Oinarriak arautzen duenaren arabera. Bakarrik onartuko da materiala paperetan eta espresuki debekatuta dago elektronikako edozein dsipositiborik.
- Bi zatien artean 15 minutuko atsedena izango da.

**Proba osoa gainditzeko 10 puntu gutxienez atera behar da**, deialdiaren 5.8. oinarrian esandakoa kontutan hartuz.

Ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dira desgaitasuna duten eta hirugarren oinarrian zehaztu bezala hala eskatu duten pertsonetzat.

Gogoan izan behar da azterketara nortasun agiria (NAN), pasaportea edo gidabaimena eraman behar dela (seigarren oinarriko 6.1.5. atala). Boligrafo beltza edo urdina ere bai.

Leioa, 2021eko maiatzaren 26an



Epaimahaiko idazkaria

Maria Luisa Cantonnet Jordi